



Curriculuma	Lander Arbelaitz
--------------------	------------------

Komunikazio Zientzietan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun, ARGIAko kazetaria eta hainbat herri mugimendutako kidea da, besteak beste, Donostiako Piratak.

2007an ARGIAN hasi zen eta urte berean Lekeitioko Zine eta Bideo bilerako dokumental amateurren lehen saria jaso zuen, Estoniako errusiarrei buruzko dokumentalagatik.

2008an Kazetari Gaztearen Rikardo Arregi saria irabazi zuen, ARGIAN egindako erreportaje batzuegatik (Danimarkaz, Irlanda Iparraldeaz eta Eskoziatz).

2011n Twitter euskaratzeko kanpaina arrakastatsua abiatu zuen eta sare sozial honetan 31. hizkuntza izan zen euskara.

2013an Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan Epaimahaiaren Aipamen Berezia jaso zuen, Donostiako Askegunean egindako lanagatik.